

Jaizkibel eta Natura 2000 Sarea

Gestio planik gabe, zer babes?

Natura 2000 sarearen barruan, Jaizkibelgo labarrek babestuak izateko behar duten gestio plana geldirik dago, Eusko Jaurlaritzak ez dio datarik jarri bere onarpenari.

URKO APAOLAZA

ZORTZI URTE DIRA Jaizkibel eta Uliako labarrak Europako Natura 2000 Sarean sartu zituztela. Europar Batasunean mehatxatuta dauden espezieak eta habitatak epe luzera babesteko tresna nagusia da sare hori –Jaizkibelgo itsasertzak 15 kilometroko luzera du eta euskal kostaldeko eremu birjin handiena da–. Izendapenak baina, ez du ziurtatzen helburuak betetzea, beharrezko neurriak ez badira aplikatzen.

Jaizkibel-Uliak urteak daramatza gestio planik gabe, eta dirudienez, horren eskumena duen Eusko Jaurlaritzak ez du aurreikusten plana onartzeko data zehatzik. Halaxe salatu du Jaizkibel Bizirik taldeak. Eusko Legebiltzarraren bidez egindako galderari Ingurumen Sailak zera erantzun dio: “Alegazio txostena amaitzeko eperik ez da ezarri, ezta agiriak aztertu eta aldatzeko ere”.

Denbora luzez dokumentua Eusko Jaurlaritzako “tiraderaren batean” gordeta egon eta gero –Leire Beteta ingurumen teknikariak ARGIAri azaldu zion gisan (2286 zk.)–, planak geldirik segitzen du.



JAIZKIBEL BIZIRIK

Gestio plana onartzeko Europako epe legalak agortu dira jadanik.

2012ko urtarrilean esposizio publikoan jarri zen eta 118 alegazio jaso ditu. Jaizkibel Biziriken esanetan, alegazioa aurkeztu dutenen zerrenda begiratzea nahikoa da “lobby anti-Jaizkibel” bat sortu dela ikusteko.

Natura 2000 Sareko babesa aurrera eramanez, ateak gero eta itxiak dauzkan Pasaiako kanpo

portuak ez luke inolako aukerarik izango. Dokumentu hori da, gaur egun, kanpo portuak duen oztopo nagusietakoa. Portuak, labarrari erantsitako plataforma erraldoi bat eta mendia zulatuko luketen bi tunel eraikitzea lekarke, besteak beste.

Ekologisten aburuz Eusko Jaurlaritzak “men egin die” Pasaiako Portuko Agintaritzaren presioei, eta gestio plana onartzeko luzapenetan ari da kanpo portuaren bideragarritasuna kinkan ez jartzeko. Areago, dokumentuaren bertsio berriak egin joan da “gero eta murriztagoak eta babesarekin konpromiso gutxiago dutenak”.

Europako araudiak dio Natura 2000 Sarearen izendapena jaso eta sei urtera behar duela gestio planak onartua egon. Bada epe hori duela 20 hilabete amaitu zen. EBk malgutasunez jokutzen du, eta europar erakundeetan kexatzeko aukera ere badago; baina horrela segituz gero, Jaizkibel-Ulia babesteko egitasmoak ahiturik hiltzeko arriskua du. ■



IBERNALO

landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...

01110 Kanpezu (Araba) - ☎ 945 102 271 / 647 911 484 - www.ibernalorural.com